



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Debagoieneko Mankomunitatearen Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamendua

1. art. Erregelamenduaren helburua

Erregelamendu honen helburua Enpresa Ekimenetarako Zentroaren (aurrerantzean E.E.Z.) zerbitzu-ematea arautzea da. Prestazio hori enpresa-ekimen bat gauzatu nahi duten pertsona fisiko eta juridikoentzat izango da, Debagoieneko eskualdean ezartzeko laguntza eskatzen badute.

2. art. E.E.Z.ren helburua

Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia Debagoieneko Mankomunitatearen zerbitzua da, eta enplegua sortzeko enpresa-ekimen berriak bultzatu nahi ditu E.E.Z. programarekin.

3. art. Eman beharreko prestazioak

Debagoieneko Mankomunitateak, Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziaren bidez Enpresa Ekimenetarako Zentroaren (E.E.Z.) programa garatzen du, eta enpresa-ekimen berrien bideragarritasuna ahalbidetzen du laguntza tutorizatuaren bidez eta hasierako kokapenerako lokalak aldi baterako lagata. Horretarako, Debagoieneko Mankomunitateak hainbat modulu egokitu ditu, industri eta zerbitzu jarduerak garatzeko.

3.1. Proiektu bat hartzea

Aurkezten zaizkion enpresa-proiektuak hartuko ditu Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziak, eta proiektu bakoitzari tutore bat esleituko dio.

3.2. Informazioa eta Aholkularitza

Sustatzaileari edo enpresa eskatzaileari esleituriko tutoreak informatu, orientatu eta aholku emango du proiektuaren definizio, negozio-plan eta enpresaren bideragarritasunari buruzko gaietan, baita hori abian jartzeko ere.

3.3. Kudeaketa eta Kontrol Tresnak

Tutoreak proiektuaren zerbitzura jarriko ditu Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziak dituen eta proiektuaren garapenerako interesgarriak diren tresnak.

3.4. Prestakuntza

Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziak prestakuntza-ekimenak antola ditzake sustatzaileen prestakuntza edo enpresa berrien kudeaketa bere alderdi guztietan hobetzera zuzenduak.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

3.5. *E.E.Z.ren lokalen erabilera*

Nahi duten sustatzaile edo enpresek, beren enpresa-jarduera hasieran kokatzeko, E.E.Z.ren moduluen erabilera eskusiboa eska dezakete aldi baterako. Erabilera horrek esan nahi du:

- Enpresari esleitzen zaion moduluen erabilera eskusiboa.
- Fotokopiagailua erabiltzeko aukera.
- Bilera-gela erabiltzea, aurrez eskatuta.

Lokalak erabiltzeko baimen-eskabideak Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntari zuzenduko zaizkio, proiektuaren tutorearen txostenarekin batera; baina aurrez, Erregelamendu honen 6. art.an ezarritako balioespen-irizpideen arabera, Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziaren Informazio Batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu.

4. art. Zerbitzuen eskatzaileak

Debagoieneko Mankomunitateko E.E.Z.k honako hauentzat ematen ditu bere zerbitzuak:

- a) Debagoiena eskualdean enpresa bat eratzeko proiektua sustatzen duten pertsona fisikoentzat.
- b) Zerbitzu hauen prestazioa eskatu aurreko hamabi hilabeteetan eratu diren enpresentzat. Enpresa eskatzaileak Debagoiena eskualdean izan behar du egoitza soziala, kapital soziala 125.000 € baino gutxiagokoa eta hasieran hamar langile baino gutxiago. Gainera, sustatzaileek lanbide-prestakuntza edo esperientzia izan behar dute enpresa horrek egin asmo duen jardueran.

Sustatzaileetakoren bat aurrez EEZren moduluen erabileraren onuradun izan baldin bada, proiektu horiek baztertu egingo dira

5. art. Eskabideak bideratzea

E.E.Z.ren moduluen erabilera eskusiborako baimen-eskabideak idatziz egin behar dira, eredu normalizatuaren arabera, eta horri enpresa-proiektuaren bideragarritasun-plana atxikiko zaio.

Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia Zerbitzuko Informazio Batzordeak aurreko hilabetean jasotako eskaera guztiak aztertuko ditu.

Eskaerak erabil daitezkeen lokalak baino gehiago baldin badira, lorturiko puntuazioaren arabera esleituko dira lokalak, 6. artikuluko balorazio-irizpideen arabera. Eskabide horiek, proiektuaren tutorearen txostenarekin batera eta Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziaren Informazio Batzordearen irizpenarekin batera, Mankomunitateko Gobernu Juntari helaraziko zaizkio berari buruz erabakia har dezan.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Ezarritako gutxieneko puntuazioa gainditu bai baina lokalik lortu ez duten proiektuak itzarote-zerrendan geratuko dira, eta zerrenda horretan sartzeko data Gobernu Juntak erabakia hartzen duen saioari dagokiona izango da.

Lokalak erabiltzeko moduan daudenean, itzarote-zerrendan dauden proiektuak dauden eskaera berriekin batera lehiatuko dira lokal horien esleipenerako, eta puntuazio-ordenaren arabera banatuko dira.

Dena den, ezingo dira EEZren moduluen onuradun izan itzarote-zerrendan sartu ondoren Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta emanda urtebete baino gehiago daramaten proiektuak.

Beren eskaera itzarote-zerrendan sartuta daukaten sustatzaileek balorazio berria eskatu ahal izango dute hasierako proiektuan funtsezko aldaketak egin dituztela egiaztatzen badute.

Salbuespen gisa, EEZn instalaturiko sustatzaileek daukaten moduluaren aldaketa eskatu ahal izango dute, kontuan izanda Gobernu Juntak beraien eskaera onartzen badu, eskatzaileek beren gain hartu beharko dituztela lokal-aldaketaren ondoriozko gastu eta tasa guztiak, eta ordura arte lokal batean emandako denbora kendu egingo zaiela modulu berrian egon ahal izango diren denboraldi osotik.

E.E.Z-ren modulu baten erabilera eskusiboa nahi dutenek, beren eskabideari erantsita aurkeztu behar duten industria-proiektuaren bideragarritasun-planeari, gutxienez honako hauek sartu behar dituzte:

I. SUSTATZAILE(AR)EN EGOERA PERTSONALK

- Bere enpresa-ekimenaren xede den produktuari/zerbitzuari dagokion merkatuan du(t)en esperientzia.
- Aurretiatzko esperientzia —sustatzaile(ar)en Curriculum Vitae ere bai—.

II. PRODUKTUA/ZERBITZUA

- Deskribapena, asetzen dituen premiak.
- Produktuaren/zerbitzuaren abantailen eta eragozpenen analisi konparatiboa, merkatuan aurrez daudenek asetzen dituztenekin alderatuta, horiekiko bereizten dituzten faktore edo giltzarriak adieraziz.

III. MERKATUA

- Merkatu objektiboa.
- Etorkizuneko proiektzioak, espero den hazkunde-tasa eta proiektzio horiek esplikatzeko dituzten arrazoiak zehaztuz.
- Lehia.

IV. HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

- Helburuak epe labur, ertain eta luzera.
- Faktore erabakigarriak proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

V. MARKETIN PLANA

- Salmenta-aurreikuspenak erdi-epera.
- Prezioak.
- Banaketa-bideak.
- Publizitatea.
- Sustapena.

VI. PRODUKZIO-PLANA

- Produkzio-prozesu osoaren deskribapena.
- Baliabide materialen premiak: makinak, tresneria, instalazioak, etab.
- Eskulanaren premiak.
- Kokapen-premiak.

VII. GIZA BALIABIDEAK

- Bete beharreko lanpostuen zerrenda.
- Organigrama.

VIII. EKONOMIA- ETA FINANTZA-PLANA

- Inbertsio-plana.
- Finantzaketa-plana.
- Aurrez ikusitako ustiatze-kontuak (3 urte).

6. art. *Proiektuak balioesteko irizpideak*

Enpresa-proiektuak Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziaren Informazio Batzordeak balioetsiko ditu eta bere irizpena emango du ondorengo irizpideon arabera:

- a) Sustatzaile(ar)en egokitasuna/bateragarritasuna garatu beharreko enpresa ideiarekin (gehienez ere 6 puntu emango zaizkio).
- b) Proiektuaren eduki teknologiko eta berritzaileak (gehienez ere 6 puntu emango zaizkio).
- c) Enpresa-proiektuaren ekonomia eta finantza-bideragarritasuna (gehienez ere 10 puntu emango zaizkio).
- d) Enpresa berriak zuzenean sortuko dituen lanpostuak (gehienez ere 6 puntu emango zaizkio).
- e) Proiektuaren sustatzaileak Debagoieneko eskualdean bizitzea (gehienez ere 6 puntu emango zaizkio).
- f) Egin asmo duten jarduerarekin edo ekintzaile-prestakuntzarekin zerikusia duten ikastaroetara aurrez joan izana sustatzaileak (gehienez ere 6 puntu emango zaizkio).



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Proiektu bat E.E.Z. programan sartzeko, aipaturiko balioespen-irizpideetan ezarritako puntuen %50 lortu beharko da gutxienez.

Gutxieneko puntuazio hori lortu arren, E.E.Z. programaren helburuak urardotu edo desbirtuatu dituen proiektuari, modulu hauen erabilera eskusiboa ukatzeko ahalmena bere esku izango du Debagoieneko Mankomunitateak, aurrez espedientean motibaturiko justifikazioarekin.

Nolanahi ere, programa horretan sartzeko baldintza da Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntak erabakia hartzea, baita lokalak libre egotea ere.

7. art. Zerbitzu-ematea Onuradunari Jakinaraztea

Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntak E.E.Z.ko moduluen erabilera eskusiborako baimena ematea onartzen duenean, hori onuradunari jakinaraziko zaio.

8. art.- Dokumentazio Osagarriaren aurkezpena

E.E.Z.ko moduluen erabilera eskusiboaren onuradun diren pertsona fisikoek edo juridikoek Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntaren erabakia jakinarazi eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean honako dokumentuak aurkeztu behar dituzte:

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kopia (Foru Ogasunaren 840. dokumentua)
- b) Enpresako bazkideen edo titularren eta bertako langileen alta-agiriak Gizarte Segurantzari.
- c) Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzari ordainketak egunean dauzkatela egiaztatzeko ziurtagiriak.
- d) Energia elektriko hornitzen duen enpresaren batekin egindako kontratua.
- e) Erantzukizun zibil orokorreko polizaren kopia.
- f) Jarduerarako eta irekitzeko udal-baimena.
- g) Fidantza eratu izanaren egiaztagiria.

Inola ere ez da hasiko esleituriko modulua erabiltzen aipaturiko dokumentazio hori aurkeztu arte.

Egin behar duen jarduera behartuta baldin badago Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen espediente egitera, pertsona fisiko edo juridikoak dagokion espediente bideratuko du Udalean, eta izapide horien berri emango die Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziako arduradunei.

Hala balegokio, oniritzia duen proiektu tekniko egiteaz arduratuko da pertsona fisiko edo juridikoak, eta dagozkion udal-tasak ordaintzeaz, baita aipaturiko tramitaziotik erator daitezkeen neurri zuzentzaileek eskatutako egokitzapen-lanez ere.



9. art. Zerbitzu-ematearen iraupena

a) E.E.Z-ren modulu baten erabilera eskusiboak gehienez urtebeteko (1) iraupena izango du, baina luzatu ahal izango da, onuradunak aurrez eskatzen badu eta Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntak baiezko erabakia hartzen badu, iraupen bereko denboraldietan, gehienez ere hiru (3) urteraino.

E.E.Z.n egonaldia luzatu nahi duten sustatzaileek ondorengo agiriak aurkeztu behar dituzte, erabilera-baimenaren indarraldia bukatu baino hilabete bat lehenago gutxienez:

- 1.- Eskabide-orria.
- 2.- Erantzukizun zibileko aseguruaren azken ordainagiria.
- 3.- Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean dauzkala erakusten duten ziurtagiriak.

Edozein luzapen-eskabide bideratzeko nahitaezko baldintza da E.E.Z-ren moduluaren erabilerrari dagozkion tasen ordainketak egunean izatea.

- b) Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntak, salbuespenezko kasuetan, proiektuaren konplexutasunagatik eta finkatzeko eskatzen duen denboragatik, aurreko atalean zehazturiko epea luzatu egin dezake, gehienez ere 5 urteraino.
- c) b) atalean ezarritako luzapen-kasu berezi horiek E.E.Z-ren lokalak erabiltzeko itxarote-zerrendarik ez dagoenean bakarrik onartu ahal izango dira. Gainera, aipaturiko dokumentazioarekin batera, kokaleku berri bat lortuko dutela ziurtatzeko egindako urratsei buruz behar besteko justifikagiriak aurkeztu behar dituzte (salerosketa-kontratua, alokairua, lokala erosteko konpromisoa, etab.).

E.Z.Z-ren moduluak erabiltzeari alde zuzenetik ez du berekin inolako zigorrik ekarriko.

10. art. Zerbitzuaren Onuradunen Betebehar Orokorrak

1. Sustatzaileak behartuta daude tutore arduradunak metodologia eta prozedurei buruz ezarritako arau edo ildo nagusiak betetzera, baita Agentziaren Zuzendaritzak E.E.Z. barruko portaerari eta instalazioen erabilera eta zaintzari buruz ezarritakoak betetzera ere.
2. Sustatzaileek dagozkien zergak, tasak eta prezioak ordaindu behar dizkiete herri-erakundeei.
3. Mankomunitateak noiznahi eska diezazkieke sustatzaileei legezko betebeharrak betetzen dituztela frogatzeko agiriak.



11. art. Onuradunen Betebehar Bereziak

E.E.Z.ren moduluen erabilera eskusiboaren onuradun diren pertsona fisikoek edo juridikoek lokala eta fotokopiagailua erabiltzeagatik une bakoitzean indarrean dauden tasak eta aire girotu eta beroketa kontsumo gastuak ordaindu beharko dizkiote Debagoieneko Mankomunitateari.

Debagoieneko Mankomunitateak ekitaldian onarturiko egutegi fiskalaren arabera egin eta bidaliko du emandako zerbitzuengatik likidazioa.

Enpresa-sustatzaileek baimendutako erabileraren arabera erabili behar dituzte lagatako lokala eta berari datzekion elementu eta zerbitzu komunak; egin behar duten jarduerarako beharrezko baimenak eskatu eta lortu behar dituzte; eta lokalean obrak egiteko edota beren jarduerarako behar izan dezaketen edozein elementu jartzeko, aurrez eta idatziz Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziari dagokion baimen-eskabidea formulatu behar diote.

Eratu behar den fidantzaren zenbatekoa baimena ematen den unean modulua erabiltzeagatik indarrean dagoen tasaren hiru hileko zenbatekoari dagokiona izango da. Luzapen bakoitzean fidantzaren zenbatekoa eguneratu egingo da une horretan indarrean dagoen tasaren arabera. Eguneratze hori 5 eguneko epean egin behar da luzapen-erabakia jakinarazi ondorengo egunetik zenbatuta.

Jarritako fidantza sustatzaileari itzuliko zaio modulua erabiltzeari utzi ondoren gehienez ere hiru hilabeteko epearen barruan, eta izan ditzakeen zorrak eta lagatako lokaletan edo bere elementuetan egindako kalteen ordaina kendu ondoren.

Enpresa-sustatzaileek kontserbazio-, segurtasun- eta higiene-egoera onean izan behar dute lokala.

Enpresa-sustatzaileek kontratatzen dituzten zerbitzu-hornitzaileei (energia elektrikoa, ura, telefonoa, etab.) kontratuen altak ordaindu beharko dizkiete, baita lokala utzi arte egiten dituzten kontsumoak ere.

Enpresa-sustatzaileek baimenaren epea bukatzean irten egin behar dute lagatako lokaletik, bertan beraiek ordainduta egin dituzten aldaketak edo obrak E.E.Z.ren onurarako utzita.

Lagatako lokala baimenaren indarraldia bukatu baino lehen utzi nahi duten sustatzaileek idatziz jakinarazi behar diote beren erabakia Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziako zuzendaritzari, lokala E.E.Z.ren esku utziko duten eguna zehaztuz.

12. art. Lokalaren erabilera eskusiborako eskubidea galtzea

Lokalaren erabilera eskusiborako eskubidea galdu egingo da Araudi honetan ezarritako betebeharren bat ez bada betetzen.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

EGINBIDEA.- Erregelamendu honi Mankomunitateko Gobernu Juntak hasierako onespena eman zion 2021eko ekainaren 1ean egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2021eko irailaren 1ean.
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

Izpta.: Belén Txintxurreta